



## «Nafarroako izakera ezagutzeko» proiektua

**LEITZALDEA** ▶ Aresoko eta Leitzako bizilagunak elkarrizketatuko dituzte

**EPEAK** ▶ Nafarroako Ahozko Ondarearen Artxibategia ekimena 2007rako bukatu nahi dute ▶ 7



Dolores Egues. HITZA

**ELDUAIN** ▶

Omenaldi  
beroa  
auzokideek  
Elduko  
serorari

Dolores Eguesen  
omenezkoan 70  
lagun bildu ziren ▶ 6



I. TERRADILLOS

**ANTTON IZAGIRRE** ▶ TOLOSA BIZIKIRIK HERRI PLATAFORMAKO KIDEA

«Prozesua amaitzeko ezinbesteko ardatza da autodeterminazioa»

Autodeterminazioaren aldeko ekimenen baitan, Izagirrek hitzaldia eskainiko du gaur, Tolosako udaletxean ▶ 3

**ASTEASU** ▶

Lanik enpresako ordezkariak  
«oso gustura» Enpresaritza  
Berritzailearen saria jaso dutelako

Neurri handiko estalkietan espezializatua dago, eta bulego nagusiak Donostian baditu ere Asteasun du lantegi bat ▶ 4



Lanik enpresa. I. GARCIA

**TOLOSA** ▶

Garaipena  
lortu ostean,  
lidergoan  
da Aralar

64-75 irabazi zuen  
Laudioren aurka ▶ 2



## ARETO FUTBOLA ▶

**Garaipena erdietsi du Laskorainek Elorrion**

4-5eko emaitzarekin irabazi zuten ikastolako mutilek larunbateko partidari

## ERREDAKZIOA

Garaipen berri bat erdietsi zuten Laskorainek joan den larunbatean Elorrion, eta jadanik bost jardunaldi dituzte porrotik ezagutu gabe. Hone-la, ikastolako taldeak hurbilago du sailkapeneko goiko multzoa.

Elorrion jokaturiko neurketa ez zen batere samurra suertatu. Horitxoak baloia-rena bila kantxaratu ziren, inizatibaren bila alegia, joko kolektiboa burutuz bizkaitarren hutsune taktikoez baliatze-ko asmotan. Lehenengo erdian gauzak ondo bidean zihozten, Tellek eginiko gol bati esker aurre hartu baitzuten markagailuan. Baina bizkaitarrek atsedenen aurretik partida berdindu zuten.

Bigarren zatien lehenengo minutuetan gauzak zeharo aldatu ziren eta horitxoek joko nagusitasuna galdu zuten elorriotarren mesedetan. Kórner bidez, 2 eta 1 aurreratu ziren etxekoak, eta Gilen binakoaren ostean, 4 eta 2 jarri ziren. Neurketa galtzeko arriskuan ikusi zuten ikastolakoek, eta jokoa bereganatu zuten berriro, oraingoan gainera gol aukerak gol bihurtuaz. Mikel Altunak bi gol «ikusgarri» egin zituen lanakoa ipiniatz eta ondoren kontraeraso bat baliatuz, Telletxeak sartu zuten amaierako 4-5ekoak.

Goleatzaileez gain, taldeak Alonsoren lana azpimarratu nahi izan du, eta baita Arregi atezainaren («lan ederra»), «Domentxe eta Gonzi titularren baja ederki bete baitzuen». Egizabal entrenatzailearekin, Arregi, Alonso, Telletxea, Saldias, Barriola, Yustos, Altuna, Amatriain eta Gil izan ziren jokalariek.

**Neskak ere «bikain»**

David Prados eta Jorge Ballesterosen gidaritzapean ari diren neskek zazpigarren garaipena eskuratu zuten ostiralean, 7-3 Idiazabalaren aurka. Zazpi partidetatik zazpigarren garaipena eskuratu dute neskek azken honekin.

## SASKIBALOIA ▶

**Laudion garaipena lortu eta gero, lidergoan da Aralar**

64-75eko emaitzarekin irabazi zuten tolosarrek; hurrengo partida, larunbatean jokatu dute Usabalen, 16:00etan

## ERREDAKZIOA

Garaipen «oso garrantzitsua» erdietsi zuten Aralarrek larunbatean Laudion. Asteazken zehar Unairen lesio larriaren berri jakin eta gero —denboraldiari agur esan dio belauneko lotailu gurutzatua eta barrukoa hautsi baititu—, «motibazio altuarekin» irten ziren zelaira, taldeko gazteari garaipena eskaini asmoz. Eta ez garaipena bakarrik, Aralarretik esan bezala, sailkapeneko lidergoa ere eskaini nahi baitiote taldekide-ek.

Partida uste baino hobeto hasi zen tolosarrentzat. Defentsa gogor batekin baloi ugari lapurtu zituzten eta kontraerasoen bidez, markagailuan lehen aldeak zabalduz joan ziren. Lehen laurdenaren amaie-

**LAUDIO ▶ 64****ARALAR ▶ 75**

**Laudio.** Ortuzar (21); Calvo (5); Hernandez (18); Del Prado (2); Goikoetxea (2); Galindez (0); Olabarria (12); Ibarrola (0); Garrido (4).  
**Aralar.** Mikel Txiki (2); Goar (32); Fernando (14); Haritz (2); Kaiet (4); Martia (1); Alberto (0); Iñigo (4); Ion (12); Joseba (4).

**Partzialak.** 12-18; 25-39; 45-55; 64-75.

rara, 6 puntuko errentarekin joan ziren (12-18). Bigarren laurdenean egoera ez zen asko aldatu. Hirukoetan eta kontraerasoetan asmatuz aldeak gora egin zuten nabarmen, atse-

naldira 14 puntuz aurretik joan zirelarik.

Hirugarren laurdenean, beharakada nabaria jasan zuten taldeak, baina, azkenean, aldea 11 puntukoa (64-75) izan zen, Mikel Txiki, Goar eta Ionen lana azpimarratu nahi izan dutelarik. Emaitza horri esker, lidergoa eskuratu du Aralarrek. Sailkapenean lau talde dira berdindurik baina aldeko eta kontrako saskiratzeei begiratu-tuz, tolosarrek dira lehenengo postuan.

Hala, taldekideek eskerrak eman nahi dizkiete zaleei, «euren babesari esker lortu bainuen garaipena». Hurrengo partidari dagokionez, datorren larunbatean, etxean jokatu dute Salleko talde bizkaitarren aurka, 16:00etan Usaba-len.

## XAKEA ▶

**Etxeberriak jarraitzen du lidergoan Hirugarren Mailako Xake Txapelketan**

Azkenaurreko txandak jokatu zituzten pasa den larunbatean

## ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean Gipuzkoako Hirugarren Mailako Txapelketako azkenaurreko txanda jokatu zen Tolosako Xake Elkartearen Txapelketako liderak, Iñaki Etxeberria tolosarrek, zortea bere alde izan zuten eta irabazi egin zuten berriro ere. Horrela, eskuratu da dagoeneko hiru igogera postuetako bat.

Beste bi postuek azken txandara arte itxaron beharko dute, ordea, lau jokalarik baitaude horiek lortzeko aukerarekin: Iker Rezola, Juanjo Villena, Aitor Alkorta eta Xabier Corredera, lauak Villabonakoak. Hasiere batean, Rezola da errezena duena, puntu erdi ateratzen baitie besteei. Etxeberriaren aurka jokatu beharko du, eta oraindik inork ezin izan dio



Pasa den larunbateko xake partidetakoa une bat. HITZA

puntu erdirik ere kendu. Villena eta Alkorta elkarren artean jokatu beharko dute, beraz, beste postuetako bat lehia horitatik aterako da. Correderek izango du zailena, matematiko-

ki aukera duen arren besteen emaitzen arabera sailka baitaiteke bakarrik. Emozioz betetako amaiera izango du aspaldiko partez, Tolosan jokatzeko den txapelketa honek.

## FUTBOLA ▶

**Tolosa Kup txapelketak aurrera jarraitzen du**

## ERREDAKZIOA

Aurrera darrai Tolosa Kup txapelketak. Hauek dira asteburuko partidaren emaitzak: Anayet Ibarrek 3 eta 4 galdu zuten Txotxeroen aurka; Uzturrek 4 eta irabazi zuten Asta pistolsen aurkakoan; Baktxusek 3 eta 1 hartu zituen mendean Elorrikoak; Ama Dambalam-ek 0 eta 3 galdu zuten Itzuli tabernaren aurka; Egunkariak 1 eta 6 galdu zuten Amarozen aurka; Zierbo de kozek 1 eta 2 galdu zuten Danon Txokoaren aurka; Egunkariak aurrerak 3 eta 7 galdu zuten URTren aurka. Azkenik igandean Txiki-teroen eta Berrize saia taldeen artekoa jokatu zen, eta emaitza azken hauen aldekoa izan zen. 5 eta 2 irabazi zuten. Ordago eta Anayet taldeak ez ziren aurkeztu.

## TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112)) Osasuna.**

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
  - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroeko dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

**ANTTON IZAGIRRE** ▶ TOLOSA BIZIRIK HERRI PLATAFORMAKO KIDEA

# «Prozesua bukatzeko autodeterminazioa ezinbesteko ardatza da»

Autodeterminazioaren aldeko ekimenen baitan, Antton Izagirre mintzatuko da gaur Udaletxean

**ESTI EZEIZA**

Tolosako Autodeterminazioaren Aldeko Taldeak antolatutako saioen baitan Antton Izagirre, Tolosako alkate ohiak hitzaldi bat eskainiko du gaur Udaletxean. 19:30etik aurrera, Udalbiltzak Tolosaren 750. urteurrenaren inguruan egiten duen irakurketa azalduko du.

**Zer da zehazki hitzaldi honetan azalduko duzuna?**

Azken batean nire hitzaldia Tolosaren sorreraren 750. urteurrenaren kokapen historiko politikoan laburtzen da. Horretarako, autodeterminazioaren azterketa hartuko dut abiapuntu. Hortik aurrera azalduko dudana puntuak hauek izango dira: autodeterminazioa zergatik, Udalbiltzak zein definizio ematen duen honen inguruan, mundu mailako legedia, eta Euskal Herrian ematen den urraketa konfirmatu. Eta azkenik, Euskal Herriaren ikuspegi historizista azalduko dut. Hau da, Nafarroako erresumara nola iritsi ginen, Tolosaren sorrera non kokatu zen...

**Tolosaren sorreraren bi ikuspegi daude...**

Batzuen ustetan, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba Gaztelako erresumarekin boluntarioki lotu zen. Bestetik, gure tesiaren arabera konkista bat egon zen. Bide batez, teoria hori erabiltzen dugu Euskal Herriare autodeterminazio eskubidea ikuspegi historizistatik erklamatzeko.

**Zein da Udalbiltzak egiten duen definizioa autoderminazioaren inguruan?**

Batik bat, Euskal Herria nazio bezala aitortzea eta mundu mailako araudiaren barnean herri guztiek herri eta nazio izateko duten eskubidea, nahiz herritarrek beraien etorkizuna erabakitzearen eskubidearen aitortza egiten du. Baina hau, mundu mailan egin diren akordio eta hitzarmenetan oinarrituz. Azken batean, Udalbiltzak dauden deklarazio ezberdinak biltzen ditu eta horretan oinarriturik, Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea defendatzen du.

**Zer da autodeterminazioaren**



I. TERRADILLOS

**aldeko ekimen honekin lortu nahi dena?**

Guretzat, negoziazio eta konponbidearen prozesuan ardatz nagusietako bat da autodeterminazio eskubidea. Horregatik, hari hortatik tiraka, ezker abertzaleak egiten duena da, eraman, bai errebidinkazio gisa, baita indar metaketarako lementu gisa, herrietara luzatzen du tratamendu hori. Azkenean, helburuak bi izango irateke: alde batetik, prozesua bera bultzatzea, eta ardatz gisa, autodeterminazioa eskubidea jartzea. Eta bestetik, herritarren parte-hartzea eta inplikazioa. Prozesuan bertan txertatuz herritarrak.

**Joan den asteazkeneko saioan zioen Pat Ricek Irlandako eta gainontzeko prozesuetaz ikasi beharra daukagula?**

Hemen, egungo prozesu honetan, batik bat, bi eredu ari dira kontuan hartzen: Hego Afrika eta Irlandakoa. Eta bi prozesu horietan emandako urratsak oso present daude bai negoziaketan mahaietan eta prozesuan bertan. Bi eredu horiek hartzen dira oinarri prozesu honetan.

**Autodeterminazioa lortuko al du Euskal Herriak?**

Prozesua azken muturreraino eraman nahi badugu, hau ezinbesteko ardatza da. Hala ere, beste gauza bat da, ez duela

izango formulazio estatiko bat, baizik eta formulazio oso dinamiko izango du. Hau da, ez da izango letra handitan idazten den aldarrikapen bat, Parlamentu batek egin dezakeena. Baizik eta, egutegi bat hartu eta zer gauzatze izango duen. Prozesu dinamiko izango da maila horretan, autodeterminazioa, nolabait, gauzatze praktikoa bat bezala ulertu behar da.

**Bestalde, bake prozesua zein egoeratan dagoela uste duzu?**

Neure aldetik baikorra naiz konponbide prozesuaren aurrean. Hala ere, egia da, une honetan bake prozesua gelditu dagoela eta krisi batean sartuta dagoela. Krisi hori muga politikoak eragiten du, alderdi batzuek demokrazia zentzu zabalean ulertzeko praktikan muga batzuk ezartzen dituzte, eta nik uste, horrek eragiten duela. Hau da, batik bat, alderdi sozialistaren aldetik, nolabaiteko bertitz dago, demokrazia bere muturrera eramateko, eta onartzeko, Euskal Herriak herri bezala baduela, eta herritarren esku utzi behar dela zer izan nahi duen erabakitze eskubidea. Hori teoria mailan beste edozein herrirentzat onartzen duena, eta berari dagokionean pauso hori ematea, bertigoa sentitzen du.

**KULTURA** ▶

## Zaindariaren festa ospatzen ari dira Hirukiden

Hirukide ikastetxeok Zaindariaren festa ospatzen ari dira egun hauetan. Hala, zazpi egunetan zehar hainbat jardunaldi gauzatuko dituzte Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko ikasleek. Ekintza hauez gain, Hirukide Gainberrin marrazkiak, abestiak, jokuak... egingo dituzte. Familientzat berriz musika emanaldia izango da bihar 18:30ean, Hirukide Jesuitinetan. Eta larunbatean, Eukaristia ospatuko da toki berean, 19:00etan.

**KULTURA** ▶

## 'Arkadia' filma ikusgai bihar, Leidorren

Leidorreko hilabete honetako zine programazioaren baitan, bihar 21:30ean Costa-Gavras-en *Arcadia* filma izango da ikusgai. Pelikularen argumentuari dagokionean, Bruno, paper lantegiko goi exekutibo bat da protagonista. Hau, berregituraketa ekonomiko bat dela eta kalean geratuko da, eta hasieran lasai agertzen bada ere, Gauzak aldatuz joaten dira, eta kezkatuz hasiko da hiru urteren ondoren ere lanik gabe jarraitzen duenean.

**KULTURA** ▶


Trikitraka Trikitronekoak Leidorretik bueltaketa. I. TERRADILLOS

## 'Trikitraka trikitron' berriro Leidorren

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen gidatzen duten *Trikitraka Trikitron* ETBko saioa grabatu zuten atzo eta herenegun Leidor antzokian. Atzokoan, Txirri juniorren presentziak nahaspila sortu zuen pailazoen artean. Eta artista gonbidatu bezala, Sebastopoleko Titiriteroak etorri ziren.

**GIZARTEA** ▶

## Jai batzordearen bilera izango da gaur arratsaldean

Gaur arratsaldeko zazpi terdian jai batzordearen bilera izango da Kultur Etxean. Bertan, besteak beste, inauterietako gaiak landuko dituzte. Bestalde, antolatzaileek dei berezia luzatu nahi diete Zaldunita bezperako danborradan parte hartzen duten elkarte eta talde guztiei.

**GIZARTEA** ▶

## Musikarien zaindariaren eguna ospatuz

Santa Zezilia, musikaren zaindariaren eguna ospatzen da gaur. Hori dela eta, Tolosako Musika bandak 20:00etatik aurrera Alde Zaharreko kaleetan zehar ibiliko dira kalejiran. Igandean berriz, kontzertu berezi bat entzun ahal izango da Leidor antzokian. Hau, 11:30ean hasiko da.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Inkesta.** Zer gai jorratuko zenituzte Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza? Zer aldatuko zenuke? Zer gehituko zenuke? Dagoen bezala ongi al dago?

## iragarki laburrak ▶

**SALGAI**

**Autoa.** BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko llantak eta tebuia. Egoera oso onean. 14.000 euro. Telefonoa: 943 65 41 43.

ASTEASU ▶ EKONOMIA

# Enpresaritza Berritzailearen saria jaso du Lanik enpresak


Neurri handiko estalkietan dago espezializatuta eta Asteasun du lantegietako bat

IMANOL GARCIA

Lanik enpresak jaso du aurtengo Enpresaritza Berritzailearen saria, Euskadiko Kutxak eta ETBk emana. Bulego nagusiak Donostian baditu ere, enpresaren lantegietako bat Asteasun dute, non 18 lagunek lan egiten duten. Juan Martinez enpresako ikerketa zuzendariak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI azaldu dioenez, «OSO gustura gaude sariarekin, baina baita pixkat harrirituta ere. Enpresa txikia gara, 65 langile ingurukoa, eta ez da ohikoa tamaina horretako enpresari horrelako sari bat ematea».

Epaimahaiak ez du zehaztu saria ematearen arrazoiak. Martinezen ustetan, enpresa txikia izanik Ikerketa eta Garapen saila izatea haintzat hartu dute. «Sail horretatik produktu berri interesgarriak garatu ditugu eta hori ere kontuan hartuko zuten», gaineratu du Martinezek.

Produktu horietan ezagunetako bat estalki erretraktil edo mugikorra da. «Enpresa guztiak parte hartu zuen produktu horren garapenean eta harro gaude horretaz», zehaztu du ikerketa zuzendariak. Egin zu-



Donostiako Illunbe zezen-plazako estalki erretraktila egin du Lanik enpresak. HITZA

ten lehenengoa Donostiako Illunbe zezen-plazarako izan zen. Ordudik horrelako estalki ugari egiten ari dira, gehienetan zezen-plazetarako. Tamaina handiko estalki mugikor zein finkoetan daude espezializatuak. Esparru horretan beste produktu batzuk garatzen ari dira eta laster merkaturatuko dituzte.



Langile batzuk lanean Lanikek Asteasun duen lantegian. I. GARCIA

ANOETA ▶

## Mendi Astea, etzi hasi eta abenduaren 2ra arte

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak Mendi Astea antolatuta du etzi hasi eta abenduaren 2ra arte. Lehenengo egunean *Mendiko medikuntza eta mendi sorospeneak* ikastaroaren —euskaraz— lehen zatia antolatuta dute, 18:30etik 21:00etara kiroldegian. Datorrean astelehenean, *Orientazioa GPSarekin* ikastaroa —gazteleraz—, 19:00etatik 21:00etara udal areto nagusian.

Asteartean, hilaren 28an, Josune Bereziartuk *Bimbaluna 9A/+ Josune hatz muturren gainean* diaporama eskainiko du, 19:00etan, udaletxeko bideo gelan. Hilaren 29an, asteazkena, Panpi Olai-zolaren *Ipar Euskal Herriko mendiak* diaporama, 19:00etan udaletxeko bideo gelan. Hilaren 30ean, orientazio ikastaroaren bigarren zatia egingo dute eta abenduaren 1ean mendiko medikuntza eta mendi sorospenei buruzko ikastaroaren bigarren zatia. Amaitzeko, GPSarekin praktikak egingo dituzte abenduaren 2an.

AMEZKETA ▶

## Herri batzarra Agenda 21aren inguruan, bihar

Herri batzarra egingo dute bihar, 20:00etan. Amezketa-ko balio anitzeko gelan, Udalak deituta. Bilerak Agenda 21 prozesuan osatu den diagnostikoaren lehen zirriborroa aurkeztea eta herritarrek antzeman dituzten hutsonei konponbideak bilatzea du helburu.

ANOETA ▶

## ‘Finantza-erakekin lan egin’ mintegia bihar KZgunean

Tutorearen bisita jasoko dute bihar, 16:00etatik 20:00etara, KZgunean. *Finantza-erakekin lan egin* mintegia emango du 17:00etatik 19:00etara. Interneten bidez kontu laburpenak, mugimenduak eta abar kontsultatu ahal izateko.

### BERRIaren upeletik ardo aparta

REMELLURI 2001. urteko  
ERRESERBAko ardoa

Zuretzat edo nahi duzunari oparitzeko!

Eskatu orain, eta zuzenean eramango dizugu  
nahi duzun lekura: - Zure etxera.

- Oparitu nahi diozun lagunaren  
etxera edo lantokira..



3 BOTILAKO KUTXA 6 BOTILAKO KUTXA

39 €

78 €



Polki-polki  
eta modu naturalen  
eginakoa ardoa,  
horizak onena erabiltuz,  
azken batean,  
berretuta dagoen ardoa,  
zapore fresko  
eta inorkorretako,  
boursuet handi  
eta oparirikoa.

ESKAERA EPEA:  
azaroaren 27a arte  
ESKAERAK EGITEKO:  
943 30 43 45

BIDALKETA GASTURUK GABE

AUKERTA EZAZU, BITZI EUSKARAZ berria

Ernioeba 3 • Tel.: 943 69 33 75  
20150 Billabona



# euskaltel

## ZURETZAT

Birsortzen ari gara beti. Aurrera egiten, aurrerapausoak behin eta berriz ematen. Egunero, pauso oro, mugimendu oro, beti aurrerantz. Horrelakoak izan gara beti. Gure irudi berria da. Zuretzat. Kontua ez da zertarako egiten dugun aurrera, norentzat baizik.

- ▣ Zuntz Optikoa  
Finkoa+TB+Banda Zabala
- ▣ Mugikorra



## BERASTEGI ▶ KULTURA

# Hurrengora arte agur aurtengo Kultur Aste «arrakastatsuari»

Beste urteetan baino jende gutxiago ibili arren, gustura agertu dira antolatzaileak herritarren parte-hartzearekin

MADDI SOROA

Igandean amaitu zen Berastegiko 2006ko Kultur Astea. Azaroaren 10ean hasi eta pasa den igandera arte, kulturaz busti da herria. Haur nahiz heldu, guztiek izan dute ondo pasatzeko parada eta tarteka eguraldi txarrak herria esnatu badu ere, herritarrek ez dute kultur zite-tara hutsik egin.

Txomin Jakakortexarena protagonista nagusia izan bada ere, haur nahiz heldu, guztiak izan dira Kultur Asteko zati, herritarren parte-hartzerik gabe ez bailitzateke posible izango horrelako ekintzak antolatzea.

Antolatzaileek adierazi dutenaren arabera, «beste urteetan baino jende gutxiago ibili da, jendeari kostatzen zaio etxetik ateratzea eta normalean ekitaldi gastronomikoak izaten ditu gustuko, bestelako ekintzetan zailagoa izaten da jendea biltzea, hitzaldietan, esaterako».

## SAILKAPENA ▶

## Gazta Lehiaketa.

1. M<sup>a</sup> Angeles Ugartemendia
2. Paulo Iparragirre
3. Juani Azpiroz

## Postu lehiaketa.

1. Edurne Otermin

## Argazki rallya.

1. Idoia Labaien
2. Leire Labaien
3. Olatz Labaien



Gazta, postu eta argazki rallyko irabazleak sari banaketan. N. LIZARTZA



Igandean, frontoain toki hartu zuen postuetako bat. NEREA LIZARTZA

## ELDUA ▶ GIZARTEA



Dolores Egues, herritarren oparia eskuan duela. HITZA

## Omenaldi beroa jaso zuen Elduko serorak

Omenaldi hunkigarriaren ondoren, 70 lagun inguru izan zen Elduainen bazkaltzen

M. SOROA

Elduko elizak jendez gainezka egin zuen pasa den igandean. Arrazoia, Elduko serora den Dolores Eguesen omenaldia.

38 urte daramatza Dolores Eguesek Elduko elizako serora izaten. Lan mordoa egina-gatik, herritarrek omenaldi ekitaldia egin zieten pasa den igandean «orain artean elizan egindako lan guztia eskertzeaz gain, herriko gaietan eduki duen hurbiltasun eta xamurtasunezko jarrera eskertze-ko».

Omenaldi ekitaldiari hasiera emateko, 13:00etan elkartu ziren bertaraturikoak elizan. Guztiz bete zen eliza, bertan izan zelarik ere Elizbarrutiko Emakumeen elkarte ordezkarietako bat. Ez zen ohiko meza izan, ordea, herritarrek hitzeko aportazioak egin baitzituzten meza hunkigarri bi-

lakatuz. Ondoren, Txomin Garmendia bertsolariak bertsoak kantatu zituen eta elizatik irten aurretik, Elizbarrutiko Emakumeen elkartearen eskutik plaka jaso zuen Eguesek. Aipatu, lehenengo aldia dela elkarte honek emakume bati orrogarria ematen diona.

Elizaren atarian, bi hiloba zituen zain Elduko serorak, bata txistua jotzeko gogoz, bestea, berriz, agurra dantzatzeko irrikaz.

Eguesek agurra jaso ondoren, Elduaingo Kontzejura joan ziren guztiak bazkari legea egitera. 70 lagun bildu omen ziren bertan, Eldu nahiz Elduaingoak gehienak ere. Bazkaldu ondorenean, lore sorta ederra eta opari berezia jaso zituen Eguesek. Gaztea zela Eldura etorri zenean herririak zuen itxurako Tapiak eginiko margolana, hain zuzen ere.

## iragarki laburrak ▶

**BASABI Inmobiliaria**

Pablo Gorosabel, 40  
1. planta - 7. bulegoa  
20400 TOLOSA  
Tel. eta Faxa: 943 65 55 87  
mug.: 649 360 994

**Alegia.** Eraikuntza berriko pabilioiak. 350m<sup>2</sup>etatik hasita.

**Anoeta.** 90 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai, kanpora begira eta berritu beharrekoa.

**Belautza.** Pabilioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.

**Belautza.** Bifamiliarra, bi solairu eta 270 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**Berastegi.** Familia bakarreko etxea salgai, 3.500 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**Berastegi.** Bi solairuko pabilioia alokairuan, 700m<sup>2</sup> solairuko.

**Berrobi.** Behe solairuko etxebizitza. 50 m<sup>2</sup>koa. 117.200 euro.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Gela bateko apartamentua salgai. Garajea aukeran.

**Tolosa.** Zaballarreta. Etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, terraza, bainugela, komuna, trastelekua eta garaje itxia.

**Tolosa.** San Frantzisko, 75m<sup>2</sup>ko atikoa salgai. Eraberritzeko.

**Tolosa.** Erremerentari kalean, 3 logelako atikoa. Egongela, sukaldea,

eta bainugelarekin. Guztiz berritua dago.

**Tolosa.** Erremerentari kalean etxebizitza salgai. Eraberritua. 2 logela, 24m<sup>2</sup>ko egongela, bainugela eta sukaldea.

**Tolosa.** Santa Klara, 90 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. 4 logela, sukaldea, egongela eta bainugelarekin.

**Tolosa.** Benta Haundin, bi solairuko etxebizitza salgai. Eraberritu beharrekoa.

**Tolosa.** San Esteban auzunean,

kanpora begirako 100m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.

**Tolosa.** Ugarran Goena, bi bizitzako baserria salgai, 110m<sup>2</sup> solairu bakoitzeko. Berritu beharrekoa.

**Tolosa.** Belate. Trasteleku berriak, argia eta aire erazgailuarekin.

9.480 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 50 m<sup>2</sup>ko bulegoa alokairuan.

**Tolosa.** Maituna zaharra, 15 garaje berri itxiak, 30m<sup>2</sup>tik aurrera. Karga jasogailuekin sartzeko. Eraikitzeko.

KULTURA ▶

# Herrien izakera ezagutzea du helburu Nafarroako Ahozko Ondarearen Artxibategiak

Leitza, Areso, Goizueta eta Aranon dagoeneko zenbait herritarrekin bildu dira, proiektua bideratzeko asmoz, baina 2007. urtean hasiko dira elkarrizketekin



Herri bakoitzeko ezaugarriak ezagutzeko elkarrizketak egin eta bideoz grabatuko dituzte. HITZA

## NAIARA GARZIA

Nafarroako Ahozko Ondarearen Artxibategia deituriko proiektua martxan jartzeko jada Leitzaldeko zenbait herritarrekin bildu dira. Patziku Perurena, Jaione Olazabal, Iñaki Perurena eta Unai Zabaleta, beste herritar batzuen artean, Aritz Ibañez, Euskokultur proiektuaren koordinatzailearekin bildu ziren hilabete honen hasieran.

Proiektu honen arabera,

«ahozko ondare aberats horrek gure herriak duela 50, 70, 90 urte nolakoak ziren erakutsiko digu». Herrietako jendearekin elkarrizketak eginez, eta hauek bideoan grabatuz, «herri bakoitzaren nortasuna ezagutu, hari eutsi eta sendotzeko tresna egokia izanen da». Honen harira, Iñaki Perurena harri-jasotzaileak hau esan digu: «Herrietako aberastasuna galdu behar den zerbait da. Adineko jendeak buruan dauka duela gutxira arte nola bizi zen

eta hau beren ahotik jasotzea interesgarria da».

Aritz Ibañezek azaldu duenez, «herriz herri taldeak sortzea da lehen urratsa, ordezkari hauek bertako jendearekin lan egin dezaten». Horretarako aurrena herriaren ezaugarriak eta berezitasunak zein diren ikusi beharko litzateke, eta herriari erabat lotuta dauden gaiak jorratzeko jendea aukeratu. «Nahitaez egin beharreko zerbait da, gizarteak berez dakarren aldaketarengatik. Dena

galtzen ari da», dio Patziku Perurena idazleak.

Finantziarioari dagokionez, Udalek finantziatu beharreko proiektua dela azaldu digu Aritz Ibañezek. Horretarako oraindik ez dira udaletzeko ordezkariekin bildu. Diruaren kantitatea onartu ondoren, honen arabera elkarrizketa gehiago edo gutxiago egingen dituzte.

Helburua bezain garrantzitsua da lan egiteko modua, eta horregatik, Euskokultur Fundazioaren arabera, «guretzako biziki interesgarria da herri bakoitzeko bizilagunak izatea proiektu honen protagonista. Herritarrek izatea elkarrizketatuak, noski, baina baita elkarrizketatuen izenak ematen dituztenak ere, zein gai jorratu behar den aholkatzen dutenak eta elkarrizketak egiten dituztenak». Proiektua aurrera eramateko Barandiaranen inkesta etnografikoan oinarritu dira, eta lehen esan bezala, elkarrizketa guztiak bideoan grabatuko dituzte. Herri bakoitzako Udalekin hitz egin ondoren, 2007. urtean jarriko dute martxan proiektua, eta urte berean amaitzea dute helburu.


Informazioa jasotzeaz gain, hau herritarren artean banatzea da bigarren urratsa, hauek eskura izan dezaten, eta artxibo hotz batean ahaztu ez dadin.

Unai Zabaleta irrati esatariak ere argi utzi digu bere iritzia: «Gure hizkuntza kultura eta nortasuna bultzatu eta erabiltzeko tresna eraginkor nahiz beharrezkoa izanen da».



IÑAKI PERURENA  
HARRI-JASOTZAILEA

«Adineko jendeak duela gutxira arte nola bizi zen buruan dauka eta interesgarria da hori beren ahotik jasotzea»



UNAI ZABALETA  
IRRATI ESATARIA

«Gure hizkuntza kultura eta nortasuna bultzatu eta erabiltzeko tresna eraginkor nahiz beharrezkoa izanen da»



PATZIKU PERURENA  
IDAZLEA

«Nahitaez egin beharreko zerbait da, gizarteak berez dakarren aldaketarengatik»



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

## Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldecohitz.a.nfo



## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Alegia.** Mike Leigh zuzendariaren *El secreto de Vera Drake* filma ikusgai, Gaztebean, 21:30ean. Azaro Kulturaren baitako hitzaldia: perretxikoak mintzagai

**Alegia.** Kultur Etxean, 19:30ean, *Euskal Herriko perretxiko jangarri eta pozoitsuak* hitzaldia izango da. Ibon Azpilikueta izango da hizlaria.

**Amezketeta.** *Bihotza: biziaren motorra* hitzaldia izango da bihar Amezketako jubilatuen elkartearen, 18:00etan. Aulas kutxa da hitzaldiaren antolatzailea.

**Tolosa.** Oargi mendi elkartearen Mendi Hamabostaldiaren baitan, mendiko materialen azoka, hilaren 26ra arte, 18:00etatik 21:00etara bitarte. Argazki lehiaketan parte hartu duten argazkiak ikusgai daude abenduaren 2ra arte, elkartearen bertan. **Villabona.** Aizkardi mendi taldearen Mendizale Astearen baitan, *Gasherbrum-II* Aitziber Ibarbia eta Iñaki Urkolaren eskutik, 20:00etan, Gurea aretoan.

### ERAKUSKETAK

**Alegia.** Kultur Etxean, eskulan ikastaroetan egindako lanen erakusketa ikusgai izango da, etzi bitarte.

**Tolosa.** Matxin Labaien tolosarraren oleozko pinturak ikusgai, Lanbroa tabernan, abenduaren 2ra arte.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

**Leitza.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
**Tolosa.** Azpiroz, M.L. Amaroz auzoa, 9. 943 67 51 18.

### IRRATIA

#### Txolarre irratia

(107.5, 101.2 FM)  
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
20:00-21:00. *Irauli uhinak*.  
21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Mendizaleen paradisu txikia

**TOLOSA** ▶ Mendi Hamabostaldiaren harira mendiko materialaren azoka antolatu du Oargi elkarteak; igandera bitarte izango da zabalik



Aukera handia dago azokan mendiko materialen artean erosteko. I. TERRADILLOS



Eskiatzeko produktu ugari aurki daitezke bertan. I. T.



Mendiari buruzko aldizkarietan ere bada zer aukeratu. I. T.

### ERREDAKZIOA

**M**endian ere azken modan joateko aukera dago, eroso eta moderno. Bada, Oargi elkarteak guztietako materiala —prezio merkeekin, gainera— Mendi Hamabostaldiaren baitan antolatutako mendi azokan. Batak, eskiak, niki eta galtza termikoak, zapatilak, zirak, forro polarrak, jertseak, zakuak, kanpin dendak... Denetik aurki daiteke elkartearen (Santa Maria kalea).

Igandera bitarte bertara daitezke interesatuak azokara, 18:00etatik 21:00etara astean zehar, 16:00etatik 20:00etara larunbatean eta 16:00etatik 20:00etara igandean. Mendizaletasuna ardatz, ekitaldi gehiago antolatu ditu elkarteak; bihar, 19:30ean, Kultur Etxean, *Bajo los cielos de Asia* hitzaldia izango da. Oargiko hormak ere txukun apaindu dituzte eta abenduaren 2ra arte ikusgai jarri dituzte argazki lehiaketan parte hartu dutenen argazkiak.

## AGURRAK ▶

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5. behea

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...